

LEGE ZARRA KENTZEN

3.- ESPARTERO ERREGE-ORDE

(1841-1843)

Urte onein inguruan aldakuntzak bein eta barriro egiten dira, batean lege zarra kendu eta bestean ipiñi. Bizkaitarrak sendo agertzen dira beti lege zarraren alde eta españatarrak beti Laterri-legea España osoan bardin betetearen alde.

Maria Kristinak alegiña egin eban lege zarraren alde, baiña erbesteratu egin eban eta Marsellan bizi zan. Andik sarritan agertzen dau Espartero erregeordearen aurkako gorrotoa eta iñoz, ikusiko dogun lez, matxinadea sortu be bai. Bizkaitik eskerrak bialdu eutsoezan lege zarraren alde egin ebanagaitik eta Espartero, ori jakin ebanean, asarre bizitan jarri zan bizkaitarren aurka. Gudaroztea gertatzeko asmoa be izan eban.

Bizkaiko aldunak be sendo egozan euren bidean eta Espartero'ri argi esaten eutsoen lege zarra aintzat artzen ez ba'da, eziña izango dala bizkaiko bakea.

Espartero'k Gomez de la Serna izendatu eban korrexidore baiña gobernatzailearen eskubideakaz. Barriro asearretu ziran aldunak ori gure foruaren aurka egoalako. Ormaetxe joan zan Madrid'era berba egitera eta epaitegiak lege zarraren arauz ipintea eskatu eutson. Espartero'k, ostera, aduanak mugara ta itxasora eroatea eskatu eban eta Naparran artu eban jokabide ona ipiñi eutson eredu lez. Lege zarretik Laterri-legearen aurka dagoanik ezer ez dala onartuko esan eutson eta korrexidorea epailari izatea zala laterri-legearen aurkako jokabide bat.

1841n. urtean kendu eban betiko Esparterok forubaimena eta lege zar osoa arriskuan izteko bidea izan zan ori, ezelako eragozpen barik Españatarrak curen aginduak sartzen ebezelako. Emen be Espartero gertu agertu zan izkilluetara joteko.

Maria Kristiñak Frantzitik matxinadea gertatu eban eta Espartero'ren aurka jagi ziran 1841n. urtean erregiñea ipinteko, iru ziogaitik: Lege zarra kendu nai ebalako, emen O'Donnell egoan erregiñearen alde. Bigarren

errege-ordetza legearen aurka artu ebelako, eta irugarren erlejioaren aurka jokutzen ebalako. Euskaldunai eta naparrai forua euren esku izango ebala berbea emon eutsen Maria Kristinak. Bilbo'n Espartero'ren lagunak artu eta Orduña'ko mugara croan ebezan. Aldundiko balkoitik itzaldia egin zan.

Emen agertu zan Espartero'ren agindu gogor batera euskaldunen lagunak Frantziara joan bear izan eban, Erregiñearen ondora. Espartero'k ia foru guztiak kendu ebazan, Korrexidore Gobernatzaille-antzekoa ipiñi eban, udalak Españan lez aukeratu bear ziran, Aldundia beste lurraldeetan lez Laterri-legearen barrura satu zan, epailaritza Españakoa langoa ipiñi zan, Aduanak itxasertzera aldatu ziran eta zerga-batzea korrexidoraren ardurapean geratu zan eta izun-ordainkiak be bai. Ez dira aitatzen gudaritza eta zergak.

Olazar'tar Martin'ek

ZUGAITZAK **BOTA** EZKERO, URA
TA TXORIAK **BADOAZ**, ZUGATZAK
SARTU **EZKERO URA** TA TXORIAK
EKARRI EGITEN DIRA.

R. CORONI

— — —

Zorionsua izateko beste batzuk iraintzen dauzana, oneik be zoriontzsunaren billa dabiltzanean, ori ez da sekula izango zorionekoa.

Buda'k